GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa

2024/05/23 **HISTORIA**

EPAIMAHAI ZK.:
KALIFIKAZIOA

DEITURAK ----------

IZENA ----------

NANa ----------

8. GAIA: BIGARREN ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA

TESTUA: **1931ko KONSTITUZIOA.**
1. artikulua. **Espainia klase guztietako langileen errepublika demokratiko bat da**, eta askatasun- eta justizia-erregimenean antolatua dago.
Haren organo guztien botereak herritik datoz.
Errepublika Estatu integral bat da, eta bateragarria da Udalerrien eta Eskualdeen autonomiarekin.
(...)
2. artikulua. Espainiar guztiak berdinak dira legearen aurrean.
3. artikulua. **Espainiar estatuak ez du erlijio ofizialik**
8. artikulua. Probintzietan mankomunatutako udalerriek eta autonomia-araubide bat eratzen duten eskualdeek osatuko dute espainiar estatua, bere egungo lurraldearen muga murriztu ezinen barnean (...)

12. artikulua. Eskualde autonomoaren estatutua onesteko, baldintza hauek bete behar dira:

1.- eskualdeko udal gehienek proposatzea (...)
2.- eskualdeko hautesle-erroldan inskribatutako hautesleen bi herenek onestea, gutxienez, (...)

3.- Gorteek onestea (...)
Atariko titulua. Xedapen orokorrak, Espainiako 1931ko Konstituzioa

HONAKO HAU ESKATZEN DA:
1. Testuaren laburpena: ..... (3 puntu)

2.- Azal itzazu, zure hitzekin, testuan beltzez dauden bi esaldiak eta bi kontzeptu hauek:

se señalan a continuación: "Nekazaritza-erreforma" eta "Fronte Popularra": …….....(2 puntu)

3. II. Errepublika: Biurteko kontserbadorea. …….....(2 puntu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa

2024/05/23 **HISTORIA**

4. Gerra Zibila: Gerra Zibilaren garapena: operazio militarrak. Gerraren ondorioak..... (3 puntu)

GAIA: ERREGIMEN ZAHARRAREN KRISIA

TESTUA: **OIN BERRIKO DEKRETUAK KATALUNIAN (1716)**

"[...] Aurretik heldutasunez deliberatu eta nire konfiantzarik handieneko ministroei kontsulta egin ondoren, **ebatzi dut aipatutako Printzerrian Entzutegi bat eratzea, zeinaren buru izanen baita nire Armen Kapitain Jenerala edo Komandante Jenerala, halako moduan non, ni agintzen hasi ondoren, haren izenean eginen baitira despatxuak [...].**

4. Errege Entzutegian kausak gaztelaniaz bideratuko dira [...].

30. Katalunian korrejidoreak izanen dira, eta hurrengo hiri eta hiribilduetan [12 korrejimenturen izenak zerrendatu dira] [...].

37. Printzerrian lehenago zeuden gainerako ofizioak, aldi baterakoak, betierekoak eta errege dekretu honetan adierazi ez diren ofizio komun guztiak, ezabatuta eta iraungita gelditu dira [...].

39. **Sometent**etan eta jende armatuko taldeetan izan diren gorabeherengatik, agintzen dut ez dadila sometent-ik eta bestelako jende armatuko talderik izan. Bestela, talde haietako kide izan edo haietan parte hartzen dutenak sediziogiletzat hartuko dira.

40. Atzerritartasunaren debekuak bertan behera utzi behar dira, nire asmoa baita, errege naizen aldetik, nire erreinuetan duintasunak eta ohoreak nire mendekoei beren merezimenduengatik elkarrekikotasunez ematea eta ez halako edo bestelako probintzietan jaiotzeagatik [...].

42. **Dekretu honen aurreko kapituluetan aurreikusi ez den orotan, agintzen dut lehenago Katalunian zeuden konstituzioak betetzea [...].**

43. Eta, orobat, nire borondatea da esandakoa betearaztea Itsasoaren Kontsulatuari dagokionez, zeinak iraun behar baitu, merkataritza loratu dadin eta herrialdeari onurarik handiena eman diezaion." (

Kataluniako Errege Entzutegiaren ezarpen eta oin berria, 1716ko urtarrilaren 16ko Errege Dekretua

HONAKO HAU ESKATZEN DA:

1.- Testuaren laburpena: ..... (3 puntu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa

2024/05/23 **HISTORIA**

2.- Azal itzazu, zure hitzekin, testuan beltzez dauden bi esaldiak eta jarraian aipatzen diren bi kontzeptuak: "Errege Entzutegian kausak gaztelaniaz bideratuko dira" eta "Printzerria".....(2 puntu)

3.- Espainiako Ondorengotza Gerra (zergatiak eta ondorioak).....(5 puntu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA

ZATI KOMUNA

2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa

2024/05/23 **HISTORIA**